

Eulàlia Reguant, CUPeko diputatua

“ERREFERENDUMIK EZ BADAGO LEGEALDI HONEK EZ DU ZENTZURIK”

2015eko irailaren 27ko hauteskundeetatik CUPeko diputatua da Eulàlia Reguant (Bartzelona, 1979) matematikari, aktibista eta finantza etikoetan aditua. Alderdi politikoekin lotura organikorik ez duten mugimenduen defendatzailea izanik, Kataluniako gobernura sartu aurretik, politikan baino, gizarte mugimenduan nabarmendu da bere ibilbidea. Kataluniako Parlamentuan elkartu gara.



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

2015ean politikan murgildu zinen baina Matematikan lizentziaduna zara. Noiz politizatu zinen?

Bitxia dirudien arren, unibertsitate garaian. Tira, politikarekiko interesa betidanik izan dudala esango nuke, baina unibertsitate garaiko ikasle mugimenduan parte hartu izana garrantzitsua izan zen. Orduan hartu nituen kontzientzia eta inplikazio handiagoak.

Dirudiena baino gertuago al daude matematikak politikatik?

Nire aurreko belaunaldian izan dira matematika ikasketak izanik politikan aritu direnak. Edozein modutan, nire fakultatean behintzat, ikasle mugimendua bereziki sendoa zen. Betiko logiketatik ateratzea aberasgarria ikusten dut, politika berez baita zeharkakoa, eta mundu honetan aritzeko ez duzu zertan izan zientzia politikoetan, zuzenbidean edo filologian aditua.

Ikasle mugimenduetan bai, baina, ezker independentistan ez duzu sekula militatu. Zergatik?

Gizarte mugimenduetatik natorrelako. Betidanik ulertu izan dut batasun ideologikotik haratago, ezinbestekoak direla alderdi politikoekin lotura organikorik ez duten mugimenduak. Garrantzitsua da bereizketa hori egitea. Ni erosoago sentitzen nintzen gizarte mugimenduetan.

Zeintzuk dira zure erreferente politikoak?

Nire ibilbidean erreferente askok izan dute eragina. Horietako bat izan da Arcadi Oliveres, Kataluniaren eraldaketarako egin zuen apustu politikoagatik eta konpromisoa ulertzeko duen moduagatik. Askok ikasi dut berarekin. Beste erreferenteetako bat izan da Chico Whitaker brasildarra, Munduko Gizarte Foroaren sortzailea, besteak beste. Eta azkenik, Érik Toussaint aipatuko nuke, herrialde txiroen zorraren inguruko pentsalari, haren ikusmoldea gakoa izan da niretzat. Kataluniatik abiatuta mundu zabalerantz, hiru horiek izan dira azpimarragarrienak, seguruenik.

Oinarrizko kristau mugimenduetatik zaitoz.

Parrokiatik edaten duen familian kokortu nintzen eta, beraz, kristautasunarekin dudak lotura, familiarik dator. Horregatik, seguruenik, unibertsitate garaian oinarrizko kristau mugimenduetan eta gogoeta zein pentsamendu kritikoen mugimenduetan murgildu nintzen. Ez hainbeste katolikoak, baina bai kristauak. Bizipen horiek gaur egun, politikan konpromisoa hartzeko moduan eragiten didatela esango nuke. Eta esperientzia hark, nolabait bultzatu zidan naizenarekin, bizitokiarekin eta sentitzen dudarekin sustraituta egotera.

Badago uste duenik ezkertiarra eta kristaua izatea kontraerrana dela. Zuri aldiz, amorrua ematen omen dizu eskuindarrak katolikoak direla esateak. Zergatik?

Erabateko kontraesana delako. Eliza katolikoa, mendeetan barna, eraiki den bezala eraiki da, baina Elizaren ikusmoldearen sorrera erabat kontrakoa da ideologia eskuindarrarekiko. Une



historiko batean boterea eta Eliza Katolikoa gauza bera bilakatu ziren. Baina, era berean, nik kristautasunaz edan dudana da, erlijioa bizitzeko eta konpromisoa ulertzeko modu bat, eskuindarra izan eta pribilegioak babesteaz oso bestelakoa.

Hala ere, kristau izateari aitortzen zaio sarri Elizaren logikan parte hartzeko beharra. Nola kudeatzen duzu zuk dikotomia hau?

Boteredunek azaldu dute, beti, euren historiaren kontakizuna. Eliza Katolikoak –erakundeak– botere ukaezina du eta bere kontakizuna zabaldu du, han eta hemen, mendeetan barna. Baina era berean, oinarritzko kristautasunetik datozen ezin konta ahala lagun isilduak izan dira Elizatik urruti egoteagatik. Azken finean, homogeneousuna saltzeko joera dago eta arauetatik ateratzen garenak baztertuak izaten gara. Besterik gabe, Eliza Katolikoaren erakundetik urruntzen garen kristauok ez dugu paparra ateratzen. Ez dugu horren beharrik.

Itzul gaitezen zure ibilbidera. 2015ean Bartzelonako Udaleko hauteskundeetan laugarrena zinen CUPen zerrendan. Hiru sartu eta zu kanpoan geratu zinen, eta hila bete gutxira Parlamentuan sartu zinen. Nola joan dira bi urte hauek?

Alde batetik, denbora oso azkar pasa da, baina bestetik, oso motel. Egia esan, ez dut gehiegi pentsatu, baina seguruenik egoera oso desberdina izango zen Bartzelonako Udaleko zinegotzia izango bantintz. Parlamentuaren ikusgarritasuna handiagoa da.

Fiare banku etikoan aktibista izatetik Parlamentuko aurrekontuak negoziatzera pasa zinen. Erakunde publikoetan ba al dago etikarik?

Inolaz ere ez. Ez behintzat nik etika ulertzen dudan moduan. Kasu, hein batean bagenekien instituzioak hainbat elitek altxa dituztela helburu bakarrarekin: pribilegioak mantentzea. Eta gero, erakunde publikoak mantendu dituztenak izan dira logika horretan murgildu direnak. Baina sistema antzerki hutsa den munstroa da. Horregatik, etikak hemen

ez du tokirik. Dena neurtzen da hurrengo hauteskundeetara begira.

CUPek orain, instituzioen parte izanik, sistemaren muina aldatzeko gaitasunik ba al du?

Instituzioak aldatu daitezke kaleko jendea bizirik dagoen bitartean. Eta zoritarrez, gaurko arazo nagusia da kaleko jendeak erakundeen esku utzi duela ardua guztia. CUP bezalako indar politiko bakar batek ezingo du etxea eraldatu. Azken finean, instituzioak dira status quo batek sortutako status quo.

Kostata, baina, onartu zenituzten aurrekontuak. Erabakiarekin pozik zaudete?

Guk aurrekontuak onartu genituen xantaia zentzugabe baten ondoren. Arrazoi taktikoengatik erabaki genuen aurrea jarraitu eta gizartearen aldarrikapenaren alde arraun egitea. Gerora izan dugun sentsazioa da, bazegoela jendea interesa zuena guk aurrekontuak ez onartzeko, hala balitz, erreferenduma ez luketelako antolatu beharko. Beste era batera esanda, mesede bat egingo



genien. Are gehiago, onartu ez genituen arte, ezer gutxi egin zen erreferendumen alde. Orain luzapeneko denboran gaude, gero eta denbora gutxiago gertatzen da eta urratsek oso motelak izaten jarraitzen dute. Beraz, arduratuta gaude egoerarekin.

Erreferendumen jarraipen batzorde bat sortzea proposatzen duzue, eta ERCek ideia begi onez ikusten du. Nolakoak litzateke?

Antzeko proposamen bat ere egin zuen aspaldi ANC Biltzar Nazional Katalanak, oker ez banago. Jarraipen batzordea funtsezkoa da, erreferendumen alde dagoen orok parte hartu ahal izango duelako. Baita *Comú*-ko lagunek ere. Batzuetan badirudi Kataluniako Gobernua Espainiakoa baino maltzurragoa izaten saiatzen dela, eta joera dago gordeka ibiltzeko, “badaezpada”. Baina Estatuak indar osoa du eta engainatzea zaila izango da. Beraz, egin behar duguna da, jarraipen batzorde hau antolatu, etorriko denaren mailan egoteko. Maiatzean gaude eta bada garaia jendea mobilizatuta egoteko. Baina, zoritxarrez, agertoki horretatik urruti gaude, oraindik ez baitakigu erreferenduma noiz izango den.

Gizarte mugimendua itzalita dagoela erraten da. Ados zaude?

» “Eliza Katolikoaren erakundetik urruntzen garen kristauok ez dugu paparra ateratzen. Ez dugu horren beharrik”

» “Bazegoen jendea interesa zuena guk aurrekontuak ez onartzeko, hala balitz, erreferenduma ez luketelako antolatu beharko”

» “Maiatzean gaude eta bada garaia jendea mobilizatuta egoteko”

Begi bistakoa da gizarte mugimenduak irailaren 27ko hauteskunderen ondotik Parlamentuaren esku utzi zuela borroka. Eta gertakari hori oso arrisku-tsua da, honaino iritsi garelako gizarte zibilari eta kaleko mugimenduari esker. Mobilizazioak ezinbestekoak dira gobernuari bultzada emateko, baina, batez ere, erreferenduma babesteko. Bestela, gobernuen arteko talka dirudi honek. Eta hilabete hauetan guztietan Espainiako Gobernuak beldurraren taktika erabiliko du, mehatxuak eta inptazioak. Hori saihesteko modu bakarra da Kataluniako Gobernuak hitzartutako urratsak betetzea eta, noski, kaleko jendearen aldarrikapenak etenik ez izatea. Ohiz kanpoko testuinguru politikoaren mailako klima mantendu behar dugu.

Duela hainbat aste adierazi zenuten erreferendumik ez badago CUPEk Parlamentua utziko zuela...

Tira, aurrekontuak onartu ahal izateko gure lehentasunei uko egin genien. Bi boto eman genituen iraila bitarteko epea finkatuz. Eta noski, hori betetzen ez bada, CUPEk legealdia bukatutzat emango du. Erreferendumik ez badago legealdi honek ez du zentzurik. Hori bai, guk ez dugu B planik aurreikusten. Gu lanean ari gara irailaren amaiera baino lehenago Kataluniako gizarteak erreferendumean bozkatzeko. ■